

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Udaleko eta alkatetzako langileen ordainsarien igoera 2024ko ekitaldirako

Udalbatzak, 2024ko uztailaren 18ko ohiko osoko bilkuran, udal-langileen eta alkatetza-langileen 2024ko ekitaldirako ordainsarien igoerari dagokionez, honako erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, udal-langileen ordainsariak ehuneko 2 igoetzea 2024ko ekitaldirako, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, azken horietan 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.bi.2. artikuluan aurreikusitakotik eratorritako igoerak barne, alderaketaren bi aldietarako homogeneotasunez, bai langile-kopuruari bai antzinasunari dagokienez.

Bigarrena. Era berean, Alkatetzaren 2024ko ekitaldirako ordainsariak ehuneko horietan handitzea, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean.

Hirugarrena. Adierazitako eta jaso gabeko igoerak aplikatzearen ondoriozko atzerapenen zenbatekoak ordaintzea.

Laugarrena. Akordioaren berri ematea ordezkari sindikalari, kontu-hartzailetzari eta udal diruzaintzari.

Bosgarrena. Hartutako erabakiaren laburpena ALHAOn argitaratzea.

Arespalditzan, 2024ko irailaren 24an

Alkate-udalburua
PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA